

BERRI OROKORRAK

2022ko azaroaren 4an 9. zenbakia

Bazkidetza

Udarregi Ikastola kooperatibako urteko bazkidetza-kuota azaroko erreziboarekin batera kobratuko dela jakinarazten dugu. Bazkidetza familiako da eta **12,02 euro** ordaintzen dira.



Jangelako oharrak

❖ 2022-2023 ikasturteko perfilak eta prezioak

[Hemen](#) topa ditzakezue ikasturte honetako jangela erabiltzaileen bazkaldar-perfila eta bakoitzari dagokion kostua.

❖ Azaroko jangelako menuak

Jangela erabiltzaileek azaroan izango duten [menua](#) hemen ikus dezakezue.



Mundualdia

Larunbat honetan, azaroak 5, MULDUALDIA ospatuko da Usurbilen. Zirimaratarrok, Gazteleku eta Mundualdiko kideekin batera, munduko jolasak prestatu ditugu guraso eta haur elkarrekin jolasteko.

Beraz, bertan espero zaituztegu. **Bihar 11:30ean herriko frontoian** bilduko gara.



Transexualitateari buruzko hitzaldia

Haur eta gazteen transexualitateari buruzko hitzaldi irekia antolatu du Hitz-Aho guraso Elkarteak.

Noiz: azaroaren 8an arratsaldeko 17:00etatik 19:00etara.

Non: Sutegiko aretoan

Naizen elkarteak bideratutako hitzaldi-solasaldia izango da haur eta gazteen transexualitateari buruz. Familien testigantzak ere izango dira bertan.



Errigora

Azaroaren 10era arte, Nafar hegoaldeko uzta euskarari puzka kanpaina abiatu du Errigorak. Nafarroa hegoalde eta erdialdeko produktuz osatutako hiru saski eskaintzen dira; beltza, berdea (ekologikoa) eta zuria. Saski horien balioaren %25 bertako euskalgintzara bideratuko da.

- **Saski beltza:** Oliba-olio birjina estra, orburuak, zainzuri zuriak, pikillo piperrak, botila ardoa, ezfia, kardua, mahats-zukua, piper-mamia, teilak, molineritoak eta 2023ko egutegia **55 €**
- **Saski berdea (ekologikoa):** Oliba-olio birjina estra, orburuak, zainzuri zuriak, pikillo piperrak, botila ardoa, ardo-ozpina, tomate frijitua, arroz integrala, pasta, Konbutxa tea, teilak, sagar-zukua, txitxirioak eta 2023ko egutegia **65€**
- **Saski zuria:** Oliba-olio birjina estra, orburuak, zainzuri zuriak, pikillo piperrak, ardo ondua, ardo zuri apartsua, patxarana, ardi-gazta, patxaran-pastak, polboroiak eta 2023ko egutegia **75 €**



Informazioa eta eskaerak: www.errigora.eus

“Euskaraz bizi nahi dut” material-eskaintza

“Euskaraz bizi nahi dut” mezuak indartsu eta argi transmititzen du euskararen aldeko jarrera. Horregatik da hain arrakastatsua. Euskararekiko aldekotasuna agerian jartzeko lagungarri gertatuko zaizuelakoan kamisetez gain, ogitartekoak biltzeko Boc’n’rolla eta botila ere eskaintzen dizkizuegu. Eta baita oso erabilgarriak diren kotoizko poltsak ere.

Beti bezala, kanpaina honen **etekina euskalgintzaren proiektuetara** bideratuko da.

Tutoreari jakinarazi zein den aukeratutako produktua **azaroaren 7a** baino lehen (eskaera orria bera inprimatu eta betez edo papertxo batean aukera idatziz). **Ordainketa eskudirutan** egin behar da (eskariarekin batera tutoreari emanez).

Produktuen irudi eta neurriak [hemen](#) topatuko dituzue.



HAUR HEZKUNTZA

Gela-bilerak

Azaroaren 15ean, asteartea, arratsaldeko **17:30ean** 2-3 urteko haurren guraso-bilerak egingo dira. Tximeletak eta Txerriak geletan.



LEHEN HEZKUNTZA

LH4-ko irteeren kobrantza

GAUR LH4. mailako ikasleek Donostiara egindako irteeraren kostua kontu korrante bidez kobratuko dela jakinarazten da.

Hemen xehetasunak:

- Autobusa: **4,65 €**



Zorriak

LH 2ko ikasle batzuegan zorriak sumatu ditugu.

Norberak bere seme/alabarekin egoera horretan ohikoak diren higiene neurriak hartzea eskatu nahi dizuegu.

NEURRI HORIEK ERAGINKORRAGOAK IZAN DAITEZEN SAIATU DENOK ASTEBURU HONETAN EGITEN TRATAMENDUA




LH 1eko familientzat oharra

Azaroaren 15ean eta 16an LH 1eko ikasleei ikusmen-osasuna prebenitzeko froga batzuk pasatzera etorriko da Teresa Olabarria optometrista.

Saio horien helburua ikasleen ikaskuntza-prozesuan eragina izan dezaketen ikusmen-arazoak antzematea da. Honako hauek baloratuko dira: ikusmen-zolitasuna (agudeza visual), begi-mugimenduak, begien koordinazioa eta ikusmen-motorra garatzea, etab. Trebetasun horiek ikasleen ikaskuntza-prozesua aurrera eramateko oinarri direnez, edozein zailtasunen detekzio goiztiarra oso garrantzitsua dela uste dugu.

Screening-aren prezioa ume bakoitzeko 14€-koa da. **Bere seme-alabari frogak pasatzerik nahi ez duenak tutoreari jakinarazi beharko dio azaroaren 11 baino lehen.**



LH 6ko ikasleen txertaketa

Osakidetzatik bideratuta, eskola-programaren barruan, baimena sinatuta ekarri duten LH6. mailako mutilei **Meningokokoaren ACWY aurkako txertoa** eta neskei, **Meningokokoaren ACWY aurkako txertoa eta Giza Papilomaren aurkako txertoa** jartzera etorriko da anbulategiko pertsonalgora **azaroaren 11an**.



DBH

Laguntasuna eta drogak

DBH 4ko ikasleak “**Drogak eta Laguntasuna**”ren inguruan eginiko ikastaroa dela eta, maila honetako ikasleen guraso zaretenoi, saio bat eskainiko zaizue ikasleekin jorratu dena azaltzeko eta guraso bezala dituzuen kezka aditu bati esposatzeko/galdetzeko...

Data: Azaroak 7, astelehena

Ordua: 17:00etatik 19:00etara (gutxi gora-behera)

Lekua: DBHko eraikina



DBHko irteeren kobrantza

- **DBH1 eta DBH2: GAUR** DBH 1eko eta DBH 2ko ikasleek egindako irteeren kostua kontu korrante bidez kobratuko dela jakinarazten da.

Hemen xehetasunak:

DBH1: Ernio; autobusa: **9,20 €**

DBH2: Legazpi - Igartubeiti; autobusa: 11 € eta sarrerak: 6 € = **17 €**

- **DBH3:** ikasbidaia lehen kuota: duela aste batzuk bidalitako baimen- orrian adierazi bezala, ikasbidaia erreserba egiteko, kontu korrante bidez 50 €-ko kobrantza egingo da **GAUR**.

Ikasbidaia pedagogikoa ez denez, etorriko ez den ikasleari ez zaio kobrantzarik egingo erreserba egin aurretik abisatzen badu.

